

Goierri tarra

286. zenbakia 2005eko irailak 6

AZOKA BEREZIA ORDIZIAN



*Betiko konfidantza
eta profesionaltasuna*

J. M. Barandiaran 1 ORDIZIA
Tel.: 943 16 00 51 - 615 78 79 08

nick's
ENGLISH CENTRE

Kurtso hasiera

Irailak 19

Izen ematea

Irailaren 12tik 16ra
Arratsaldeko 6etatik 8etara



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirurgian lizentziatuak:

I. Fdez Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN



Aitzol Barandiaran

Opor bukaera

Oporren paradoxa
misterio zahar,
iristea kosta ta
aldegin azkar.
Festaren bukaerak
lan aldia dakar
ba al da arrazoirik
egiteko negar?
Gaurko poza bihar,
oroimen irripar.
Aisiari bizkar
abuztuan zehar
lan egin duenari
galdetu behar!

Hondartzara joanda
arazo itzela
metro karratu baten
'giri' tropela!
Kotxean 20 ordu
itota bezala...
prezioak gehiegi
igo dituztela...
"gizendu naizela?"
Euliz lepo gela,
zerbeza epela...
...edo salmonela!
Nork dio oporretan
ondo geundela?

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN



Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 88 96 12

Publizitatea: 607 530 424

647 319 757

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Erredakzioa: Lorea Iparragirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga

9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**Goierritarrak ez du bere
gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.**

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Xabier Iraola

5. Ingurugiro txokoa: Harri
bolkanikoak Beasainen7. Errezeta: Txahal masailak
amonaren erara
Aholkua: Maratoirako aholkuak

8. Kate motzean: Andoni Berasategi

9. Egitaraua: Euskal Jaiak

13. Garai batean: Mikel Garmendia

14. Erreportajea: Beasaingo
ludoteka16. Erreportajea: Argazkia eta
irudimena18. Elkarrizketa: Estatu Batuetan
zesta puntan

22. Non zer?

24. Debaldeko iragarkiak

30. Argazki zaharra



Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria eta
Itsasondoko udalak



Goierritarra Goierriz kanpo
jasotzeko tarifak:
Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 15 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 27 euro
Europaz kanpo: urtean 39 euro



Xabier Iraola

**Datorren
ikasturte edo
lanaldirako,
helburu edota
proiektu
txikiak
finkatzea
erabaki dut**

Helburu txikiak

Amaitu dira udako oporrak. Amaitu da aspertzeko astia, hondartzan jiratabuelta eguzkia hartzeko aldia eta eguneroko abiadan alboan utzitako liburuak astintzeko epea.

Aurtengoan irakurritakoen artean, Arantzabalek minbiziari buruz idatzitakoak neure barnea ikutu badu ere, bereziki, bi aipatu nahi nituzke: John Updikeren "La belleza de los lirios" eta Eugenio Ibarzabalen "Piensa bien y acertarás".

Lehenengoan modu oso aberatsean eta xehetasun handiz egileak Estatu Batuetako familia baten belaunaldi ezberdinen gora-beherak, handikeriak eta nola ez, mixeriak ere kontatzen ditu, orokorrean harturik, amerikanoen bizimodua kritikatzeko edota, gutxienez, zalantzan jarriz. Bere lanbidean hutsegindakoan norberaren bizitzak hartzen duen kolpada, diruari eta gauzak edukitzeari ematen diogun garrantzia, fanatismoaren zeresana gure bizitzan, etab.

Bigarrenean, aspaldidanik pista galdua nuen Ibarzabalen liburuan, gure bizitzaren helburua edo proiektuaz jarduten da modu oso argi eta alaiean. Liburu atsegina irakurtzeko benetan eta are gehiago, irailleko aldapari ekiteko bezperan. Zein da neure helburua bizitza honetan? Zeintzu dira neure eguneroko bizitzan eta neure lanbidearen bidez lortu nahi dudana? Neure bizitzaren arlo guztiak (lanbidea, familia, lagunartea, herria, etb.) modu orekatuan eta koherenteaz bizitzen al ditut?

Egia esanda, bi liburu hauek aukeratzeari neure asmoa ez da bizitzaren norabidea zalantzan edota kolokan jartzea. Eguneroko martxan daramagun abiada gutxitu, patxada eta lasaitasunez neure buruari hainbat kezka planteatzea baizik. Ertzeko asmorik ez dudanez, neure bizi-

modu osoa berplanteatu baina, datorren ikasturte edo lanaldirako, helburu edota proiektu txikiak finkatzea erabaki dut.

Azken urtean bezala lanera joateko trenaren aldeko apustuarekin jarraitzeko asmoa dut (ahalegin txikia baina neure ustez garrantzitsua), herri mailan oinezko eta bizikletaren erabilpena sustatzen; benetan beharrezkoa dena eta alboragarria dena bereituz, neure kontsumismoa gutxitu nahi nuke eta kontsumitzen dudanean, ahalik eta ontzi gutxien sortzen saiatuko naiz; edukitzea baino izatea askoz garrantzitsuagoa dela barneratuz, neure formazioa aberastu nahi nuke eta era honetan, buruan dantzan dabilkidan atzean geratzen ari naizelaren ustea ezabatu; euskararen alorrean, iaz hasi arren liburuak irakurtzerakoan "berdintasun plana" aplikatzen jarraitu, euskara eta gaztelarazko liburuak txandatzuz irakurritz; nere emaztearekin batera urrian izango dugun lehen semeaz gozatu, neure egoera fisikoa zaindu, herralde bat edo jeitsiz, etab.

Helburu txikiak, eskuragarriak, nahiz saiatu, lortzen ez baditut frustazioa sortuko ez didatenak eta neure oreka pertsonala galduaraziko ez didatenak. Baina hori bai, helburu txikiak lortuz, neure bizitzaren norabidea sendotuz eta azpimarratuz. Azken batean, gu guztion azken helburua pertsona ona eta zoriontsua dela aurrepentsatuz, bizitzak aukera ugari ematen baitizkigu helburua lortzeko gure inguruan ditugun senitarte, lagun eta bizilagunen *izurrau* gabe edota ahal izanez gero, on eginez.

Saiatu gaitezen hastear dagoen ikasturtea aprobeztatzen eta iparra galdu gabe, gure proiektu pertsonalari zentzua ematen dizkieten helburu txikiak betetzen.

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

m

Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Harri bolkanikoak Beasainen



Harri bolkanikoak Arriarango urtegiko itzulia egiteko bide ertzean

Beasaingo Arriaran, Garin eta Astigarreta auzoetan gure artean arrunta ez den harri mota bat dago, mikrogabro antzekoa, ia-ia harri bolkanikoa dena. Harri hori marga gris urdinsken tarteetan aurkitzen da eta bere kolorea gris berdeska da. Arriaran urtegiko itzulia egiteko bide bazterreko ezpondan oso ondo ikusten dira (ikus goiko argazkia; eta, urtegiaren silueta eta hor seinalatutako tokia)

Jakina denez harri bolkanikoak lur barruan urtutako materialak lurgaineratu eta hozten direnean sortzen dira. Arriarango harrien kasuan, urtutako material horiek goranzko bidean, lurgainera iristeko gutxi falta zitzaiela, hau da, erabat kanpora atera baino lehen,



Harri bolkanikotsu hauek Astigarretako zenbait etxe eta borda eraikitzeak erabili dira.

solidotu egin ziren (ikus marrazkia) gaur ikus ditza-kegun harriak sortuz. Harri horiek harri bolkanikoen jatorri eta izaera kimiko berbera dute.

Harri hauek Kantauri Itsasoa irekitzen ari zela eman zen bolkaniketa garaian sortutakoak dira, duela 85 milio urte inguru.

Joxan Auzmendi

JAKIN BEHARREKOAK

Kontserba-industrietatik eratorritako hondakin-urekin ureztatzeak ez du lurzorua kaltetzen. Hori da, hain zuzen ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoan aurkeztu duten dotorretza-tesi baten ondorio nagusia. Hondakin-uren bidezko ureztapena ezartzerakoan hiru faktore hartu behar dira kontuan: nolakoa den lurra, ureztapen sistema eta ezartzen den laborantza-mota. Kontserba industrietatik eratorritako urak ez dira kutsagarriak, eta, gainera, lurralari materia organikoa eta beste zenbait elementu ematen dizkiote.

Higaduraren errudun nagusia: gizakia. AEBtako Michigango Unibertsitateko ikertzaileek historiaurreko higatze-tasak eta giza jardueraren ondorio direnak alderatu dituzte: lurra goldatzea, zelaia sortzea eta eraikuntza-lanak. Lurrazalaren higaduran gehiago eragiten dute giza jarduerak naturaren prozesu guztiek batera baino.

LIBURUA

“Salgai: Euskal kontsumo gizartea aztertzen”

Zerberri, Patxi Juaristi, 2005. XX. mendean ekonomia-aren ikuspuntutik nagusi ziren ereduak errotik aldatzen ari dira Euskal Herrian. Horrela, auzoetako denda txiki eta familiarretan erostetik, multinazionalak gobernatzen dituzten azalera handiko dendetan eta Interneten erostera pasatu gara. Ondorioz, tradizioz jaso diren balio, ohitura eta portaera sozio-ekonomiko asko zailantzan daude. Guzti hori saio polita eta ulerterrezean eskaintzen du Juaristik.

Mugikortasun iraunkorra

Datorren irailaren 16tik 22ra, Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatuko dugu Goierriin. Aste honetan burutuko diren ekintzen bidez, mugikortasun iraunkorra bultzatu nahi da.

Zer da Mugikortasun Iraunkorra?

Kontzeptu berri hau pixkanaka administrazio publiko-eta politikan eta herri-tarren ohituretan ari da sartzen.

Mugikortasun Iraunkorraz ari garenean, ekintza, tendentzia eta aldaketa ugari ari gara hitz egiten. Mugikortasun iraunkorrak garraibideen arazoizko erabilera bat lortzeko ekintza eta prozesuak hartzen ditu bere baitan.

Kontzeptu honek ikuspuntu ezberdinak barneratzen ditu. Azken batean, helburua, errepideetan dabilen ibilgailuen kopurua gutxitzea da. Baina, bestalde, honela, autoek sortzen duten kutsadura gutxituz, azpiegitura berriek eragiten dituzten inpaktuak ere gutxitu eta sozialki justuagoa

Azken batean, helburua, errepideetan dabilen ibilgailuen kopurua gutxitzea da.

den bizimodu eredu bat bultzatzen du.

Gainera, energia aurrezpen garrantzitsu bat eman- go litzateke. Azken batean erregaiak sortzeko erabiltzen diren erreserba fosilak mugatuak baitira.

Egun, auto bolumen ikaragarria daukagu errepideetan, eta bolumen handi hau ekidin daiteke. Adituek, datu ugari ematen dituzte mugikortasun iraunkorra guztientzat helburu izan behar-ko lukeela adierazten dutenak: adibidez, autoz egiten diren desplazamenduen he- ren bat 2 km takoa baino txikiagoa da (oinez, txirrin- duz egin daitekeen distan- tzia). Mendealdeko ibilgai- luen okupazio-tasa ez da 2 pertsona/ibilgailuko izatera iristen. Gainera, garraio- bi- deek eragiten duten kutsa- dura haundituz doa urte- z urte.



Goierriko zenbait datu

- Beasainen autoz egiten diren desplazamenduetatik %40 kilometro bat baino distantzia txikiagokoak dira. Gisa honetako 2.300 desplazamendu burutzen dira egunean.
- Malkaskoko zubian iazko irailean CAFeko langileen irteera orduan eginiko neurketetan, 340 auto inguru kontatu ziren, hauen batazbesteko okupazio tasa 1.26koa zelarik.
- Goierriin, autoz egiten diren desplazamendu guztien %87 eskualde barrukoak dira (EAEko Mugikortasun azterketa 2003).
- N-1ean Itsasondo parean egunero 40.000 auto inguru pasatzen dira
- Goierriko parke mugikorra (ibilgailu kopurua) 23.034koa da. 1996tik 2002ra %26ko igoera eman da ibilgailu kopuruan.
- Maiatzetik martxan den CAFeko langileen autobus zerbitzuaren erabiltzaileak 160 inguru dira.



kutxa

gizarte ekintza

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

T
O
L
A
R
E

URBITARTE

SAGARDOTEGIA

☎ 943 18 01 19 ATAUN

SUKALDEAN



Gorka Salaberria
Rubiorena jatetxea
Beasain

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 4 txahal masail
- Tipula bat
- Porru bat
- Baratzuri buru bat
- Haragi salda
- Olioia
- Gatza

Txahal masailak amonaren erara

Lehenik eta behin, txahal masailak garbitu behar dira dauzkan zainak eta koipea kentzeko. Garbitu ondoren, masailak ontzi batean jarriko ditugu eta oliotan gorrituko ditugu. Hau egindakoa masailak ontzitik aterako ditugu.

Olio horretan bertan barazkiak eta baratzuri osoak gorrituko ditugu eta ondoren masailak eta haragi sal-

da botako ditugu bertara. Bi orduz poliki-poliki egosten eduki behar dira xamurrak egon arte.

Gozatu ondoren, masailak atera eta ontziko salda iragaziko dugu. Salda hau urrituz loditu egingo da eta orduan masailak sartuko ditugu ondo glaseatu arte.

Plater horren lagungarri bezala patata pure bat egin daiteke.

Maratoirako aholkuak

Maratoiaren aurretik:

1) Osasun kontrolak eta mediku balorazioak egitea komenigarria da. 2) 16-22 aste entrenatzea gomendatzen da. 3) 25-30 km gelditu gabe egiteko gai izan behar gara txapelketa aurretik. 4) Zapatila eta galtzerdi egokiak erabiltzea beharrezkoa da. Txapelketa egunean ez ezer estrenatu. 5) Aurreko egunean karbohidratodun janariak jatea komenigarria da: pasta, arroza, patatak... 6) Aurreko egunean, hamar minutu baino gutxiagoko bainu beroa eta luzaketak egin. 7) Hilerokoarekin odol asko galtzen badugu eta Txapelketarekin koinzidituz gero, ez da komeni korri egitea. 8) Gosaria, gutxienez, irteera baino 3 ordu lehenago bukatuta izan behar da. 9) Gosaria eta irteera artean pixkanaka zerbait edan. 10)

Irteera aurreko ordubetea ez edan azukredun edaririk. 11) Izterretan, titietan... baselina erabili. 12) Irteera aurretik beroketa egin: korrika pixka bat eta luzaketak.

Maratoian zehar:

1) Habitua ilamenduetan ohitura dugun edaria edan. 2) Erritmo aldaketarik ez egin. 3) Egun eguzkitsuetan kolore argiko arropa erabili eta normalean baino gehiago edan. 4) Frogan zehar bularreko mina badugu, hotzikarak, botaka egiteko gogo, oreka-eza, arnasa hartzeko zailtasunak... mediku laguntza eskatu. 5) Aldapak, giroek, desnibelak, haizeak, eguraldi beroak... esfortzu handiagoa eskatzen dute, erritmoa egoera horietara egokitu. 6) Leher eginda bagoaz, abiadura lasaitu edo gelditu, arnasa berreskuratu eta pixkanaka

berriro hasi. 7) Gihar batean uzkurduraren bat izanez gero edo tiroiren bat, kontuzkontuz gihar hori luzatu, lasaitu eta pixkanaka berriro korrika hasi.

Maratoiaren ondoren:

1) Lasterketa bukatu ondoren ez da erabat gelditu behar. Helmugan gelditzea ezinbestekoa bada toki berean segi trostan. 2) Hankak ur hotzen sartzea komenigarria izan daiteke, inflamazioak zerbait jaisteko. 3) Froga bukatu ondoren edaria pixkanaka edanez jarraitu. 4) Janari solidoak bi ordu pasa aurretik ez jan. Egokiena karbohidratoak pure bezala jatea litzateke, elektrolitoak eta fruta ere gaineratuz. 5) Batzutan, maratoia bukatu ondorengo sei orduetan defentsa gutxiagorekin gelditzen da gure gorputza. Kontuz ibili or-


AHOLKUA



Jon Etxeberria
Kemen K.O.Z.

du horietan. 6) Maratoi ondorengo lehenengo gauean lo kalitatea oso garrantzitsua da. 7) Hurrengo 2-3 egunetan karbohidratoetan aberatsa izan behar da dieta. Proteinak jaten lasterketa eguneko gauean edo hurrengo eguneko gosarian hasi. 8) Hurrengo 7-10 egunetan ez korrikarik egin. Igeri pixka bat, luzaketak...






SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
XOI, 30x 60x 80x 144x 02

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)





**“Ziur nago
pala indartuko
dela lehen ere une
hobeak ezagutu
dituelako”**

Oiangu Pilota Elkartea partidu asko irabazten ari da. Zein da sekretua?

Taldeko belaunaldi bat pilotari heldutasunera (30 urte ingurura) iritsi dela esango nuke. Honek beste zerbaite ere esan nahi du, urteetan egindako lanaren fruituak orain jasotzen ari garela alegia.

Zenbat lagun aritzen zarete palan jokatzeko?

Oiangu 20 bat lagun gara, herri desberdinetakoak.

Zein mailatan jokatzeko duzue?

Euskal Herrian txapelketa garrantzitsuenetan maila bakarra dago baina probintzia bakoitzetik urteko 3 onenek bakarrik hartzen dute parte. Azkenaldian urtero sailkapen hori lortzen ari gara, bai larruzko paletan baita pala motzean ere.

Udaran partidu edo txapelketa asko al dituzue?

Bai. Herriko festak ugaritzen diren bezala, Euskal Herri guztian zehar erremintazko txapelketak ere pilatu egiten zaizkigu: Gasteiz, Sopela, Erreterria, Biarritz...

Zer balorazio egiten duzue denboraldiaz?

Irakurketa positiboa egiten dut azken urteetako gorakadan jarraitzen dugulako. Lortu ditugun tituluak alde batera utzita, garrantzitsuenak Oiangu gero eta eremu nabarmenagoak jorratzen ari dela da: Gipuzkoako eta Euskal Herriko selekzioa, Euskal Herriko ranking-eko goiko postuak, goi-mailako gazteei ateak irekitzen ere ari gara.

Horrek beste gauzetarako denbora uzten al dizu?

Bai, egunero-egunero entrenatzea pentsaezina da besoen-tzako, kaltegarria baita. Bestelako hobbia ere baditut.

Eskupelota ezagunagoa da eta zale gehiago ditu. Palak zergatik ez?

Eskupilota jende askorengana iristen da. Alde batetik, telebistaren eragina dago; bestetik, ume askok jolas bezala bi-

zitzen dute eta ezagunagoa zaie. Palak indarra hartzeko, beti bezala, publizitatea behar du jende gehiagorengana iristeko. Honekin batera, azpiegitura sendoak lehiaketetan (goian) eta harrobian (beheran).

Profesionaltako aukerarik ba al dago?

Bai, baina gauza desberdinak dira. Bilbon dago enpresa bakarra eta gainera pala luzean jokatzeko da. Aldiz, mundu guztian zehar gehien hedatu dena larruzko paleta eta pala motza dira eta denak afizionatuak gara. Kalitate handia dago baina onenek ere ez dute diru askorik irabazten.

Nola ikusten duzu pala egun?

Pena da oihartzun gehiago ez edukitzea. Seguru nago noizbait indartuko dela lehen ere garai hobeak ezagutu dituelako. Gaur pala motza herrietara promozionatu beharra dago, pilotariak ere ezagutzera emanaz. Euskal Herrian dagoen mailarekin ikuskizun ederra emateko modua dago.

Pala asko hautsi al dituzu?

Bai, pala batek hilabeteak iraungo ditu gehienez.

Zer behar da palan ona izateko?

Mugimenduen koordinazioa, azkartasuna eta erreflexuak. Indarra berez etortzen da.

Pala ez den beste kirol bat?

Futbola, baina ez telebistakoa.

Kirolari bat?

Tomas Lakalle, gure gremiokoa.

Gustuko bikotekidea?

Azkenaldian Azeari Andonegik jokatzea egokitu zait gehien eta primeran moldatzen gara.

Amets bat?

Bi, Euskal Selektzioak Munduko Txapelketa jokatzea eta pala motza profesionala izatea.

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Euskal Jaiak 2005



Jai zoriontsuak!



© 943 88 49 50

Filipineta, 13 - behea
ORDIZIA

**ORDIZIAN ETA BEASAINEN,
KALITATERIK ONENeko ERAIKUNTZAK:**

**ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK,
LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK**

borja de la cuesta
*Euskal Jai
zoriontsuak
denoi!*

Kortinak,
alfonbrak,
etxeko arropak
Estoreak eta panel japonesak

Tel.: 943 880 432

Plaza Nagusia, 4
ORDIZIA

Irailak 6, asteartea

17:30etan: Bertako produktuekin egindako Elkarteen arteko XV. Sukaldaritza Lehiaketa eta Goierriko odolki onenaren XI. Dastaketa - lehiaketa.

Irailak 7, asteazkena

09:00etan: Goiz eresia Ordiziako txistularien, Tolosa-ko dultzaineroen eta Zumarragako trikitilarien eskutik.

09:00etan: Argazki rallyren hasiera.

10:00etan: Gazta, ganadu, fruta eta barazkien, lumagorrien eta perretxikoen erakusketa eta lehiaketak. (ikus esku programak)

12:00etan: Joxe Migel Barandiaran plazan, fruta, barazki eta perretxiko lehiaketen sari banaketa.

12:30etan: Garagartza plazan, ganadu eta lumagorri lehiaketen sari banaketa. Segidan, bertsolarien, dultzaineroen eta trikitilarien saioak.



13:00etan: Beti-Alai pilotalekuan, gazta lehiaketaren sari-banaketa.

17:30etan: Beti-Alai pilotalekuan, profesionalen arteko eskuzko pilota partidak: 1.Partida: Retegi II - Mendizabal II / Arretxe - Escudero.

2.Partida: Olaizola II -

Otxandorena / Bengoetxea VI - Beloki.

19:00etatik aurrera: Euskal dantzen erakustaldia herriko kaskoan Alkartasuna-Ohiaka taldearen eskutik.

19:30etan: Jose Migel Barandiaran plazan, herri kirolen erakustaldia.

Oharra: Asteazkenean, or-

diziarrei baserritar jantzi kalera ateratzeko deia egiten die udalak.

Irailak 8, osteguna

Egun osoan: Haurrentzat parkea puzgarriekin eta euskal-karaokea Plaza Nagusian: goizez 11:00/13:30 eta arratsaldez 16:00/20:00.



KIXMI

Artesania · Opariak · Jantziak

Euskal Jai zoriontsuak denoi!

K. Nagusia, 28 ☎ 943 16 02 48 ORDIZIA

Euskal Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Diseinua Kalitatea
Berrikuntzak Garantia

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA



YARZABAL, S.L.


Zurgindegi

AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

ARANTXA
bodegoia



☎ 943 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxe: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



*Iazko Ordiziarrock
jaialdiko
antolatzaileak.
Hauek Ordiziako
musika talde
desberdinetako
partaideak dira.*

21:30ean: Barrena Kultur Etxean, "Ordiziarrock 05"-en aurkezpena eta taldeen kontzertua.

Irailak 9, ostirala

18:00etan: Beti-Alai pilotalekuan, gurpil-ohol edo skate-zirkuitua irekiko da, entrenamenduetarako. (Ordiziarrock 05)

20:00etan: Beti-Alai pilotalekuan txupinazoa eta Ordiziarrock 05 hasiko da. Segidan, kalejira alde zaharrean.

22:30ean: D'Elikatuz zentroan, Xabier Amurizaren "Lazkao Txiki bat-bateko sorgina" ikuskizuna.

22:30ean: Pilotaleku txikian kontzertua eskainiko dute, "Dogma de Fe",

"Adictiva" eta "Milkshake" taldeek. (Ordiziarrock 05)

Irailak 10, larunbata

10:00etan: Herriko tabernaren X. urteurrena ospatzeko festa plaza nagusian, haurrentzako jokoak eta bertso-triki-poteoa...

13:00etan: "Balkoitik bal-koira bertso-saioa" plazan.

16:00etan: Beti-Alai pilotalekuan, gurpil-ohol edo skate txapelketa (1.txanda) eta grafiti-erakusteka. (Ordiziarrock 05)

18:00etan: Merienda herri-koia egingo da Beti Alai pilotalekuan. (Ordiziarrock 05)

18:00etatik aurrera: Toka txapelketa, malabareak, triki-poteoa.....

19:00etan: Gurpil-ohol edo skate Txapelketaren finalak Beti-Alai pilotalekuan. (Ordiziarrock 05). Segidan, sari-banaketa.

22:30ean: "Asma", "Mutuo Desprecio" eta "Nuke" taldeen kontzertua. (Ordiziarrock 05)

Irailak 11, igandea

12:00etan: Lazkao-Txiki XIV. Bertsopaper Lehiaketaren sari-banaketa Barrena Kultur etxean.

18:00etan: "Xarnege" taldearen kontzertua plazan, Euskal Herria eta Gaskoinia mugako musika.

 biok z e r b i t z u a k	kudeaketa
	fiskala
	kontablea
	merkatala
	laborala

Tel 943 88 44 00
 Faxa 943 80 51 27
 www.biokzerbitzuak.com
 Ordizia Goierri, 12

 943 88 79 19 Domingo Unanue, 1 BEASAIN	 ORDIZIA BIDEO KLUB 943 88 79 19 Domingo Unanue, 1 ORDIZIA	 JOSE LASA, LAZKAO
---	--	---

JOSUNE ileapaindegia	 KLAUDE edergintza
'Edergintza eta ileapaindegi tratamendu guztiak	
Iturtxo, 5 Tel.: 943 16 22 56 ORDIZIA	

 Arantxa Lentzeria	J. M. Barandiaran, 3 ORDIZIA 943 88 76 15
---	--

laser depilazioa - mikropigmentazioa - zelulitisaren aurkako tratamendua emaztegaiei makilajea	
	Lor ezazu zure depilazioarentzat irtenbide azkar, progresibo eta ziurra Probatu laserraren gozamina Eta goza ezazu zure larruazalaren leuntasunaz JOSUNE ESTETIKA ZENTROA J. M. Barandiaran plaza, 3 ORDIZIA 943 882 888 e-mail: centrojosune@yahoo.es




Sandra Ileapaindegia
Euskal Jai zoriontsuak denontzat!
Tel.: 943 087 056 Garagarza plaza 10 ORDIZIA



Ordiziako Tabernarien partetik



*Euskal Zai
zoriontsuak*



Mikel Garmendia abuztuaren 6an hil zen:

Ordiziar aktorea oroitzuz

Iragan abuztuaren albiste triste bat jaso zuen Goierri eta Euskal Herriak. Izan ere, abuztuaren 6an Mikel Garmendia ordiziako aktore ezagunak azken arnasa eman zuen. 60 urte zituela hil zen Garmendia urte askotako lanaren ondoren.

Nahiz eta azken urteetan gaixotasuna dela eta eskenatokietatik kanpo egon zen Garmendia, euskal kulturako eta euskal gizartearen jende askok zuen bera gogoan. Azken aldian, omenaldietan izaten zen Ordiziako aktorea ikusteko parada. Hala nola, 2004ko abenduan ETBk omenaldia egin zion Kursaalean. "Olentzero Begi Gorri" ikuskizunarekin batera omendu zuten Garmendia. Hala ere, musika, dantza eta antzerkiarekin batera, Mikel Garmendia-ren bizitzaren kontakizuna egin zuten irudi eta soinu muntaien bidez. Bestalde, aurten oso sari berezia jaso zuen Garmendia. Urteetan zehar bere lagun eta lankide izan diren pertsonak, Euskal Aktoreen Elkartearen kideak, Besarkada saria eman zioten Garmendiari berak inguruan izan zuen eta zeukan garrantziaren oinarri.



Betetako ametsa

Ordizian "Kutturru" bezala ezagutzen zen Garmendia eta jaioterrian ibili zen gartzaroan zehar. CAFen egiten zuen lan baina bere gustuko lana antzeztea zen. Horrela, 1982an Antzerti eskolan sartu zen eta antzerkiaren nondik norakoak ikasten aritu zen. Orduetik aurrera, antzezlanak bere bizia izan zen, betetako ametsa.

Nahiz eta aktoreena segurtasun gutxiko ofizioa den, Garmendia zortea

izan zuen bere bizitzan. Honako iritzia agertu zuen bere lanaz duela 10 urte egin dako elkarrizketa batean: "Gurean horrela funtzionatzeko du: zaudenean zaude, gero zutaz ahaztu litezke. Espainiar estatuan badira ni baino askoz curriculum hobea duten aktoreak langabezian. Txanpa joan zaie eta beste bat iritsi arte zain egon behar". Lan asko egin zituen Kutturruk bere bizian zehar. ETBko telesail garrantzitsuenetan hartu zuen

parte. Izan ere, *Bi eta bat* eta *Jaun eta jabe* bezalako lanetan aritu zen. Hala ere, *Goenkale*n urteetan zehar bete duen paperak oso ezagun bihurtu zuen. Telesail honetan, Joxe Mari Lasaren papera egiten zuen eta euskal gizartearen oso entzuna izan zen.

Goenkaleren proiektua ezagutu zuenean, beldurra eman ziola aitortu zuen Garmendia orain urte batzuk. "Ni beldurtu egin nintzen, 200 kapituluko halako gauzarik ez da egin inoiz hemen... Baina ezetzik ezin nuen esan, hemendik bizi naiz, esplikatu iezaiozu etxekoandreaki beste lan bat utzi duzula. Bapatean, eskuartearen 'bonba' bat geneukala konturatu ginen". Goenkalek garrantzi handia izan zuen bere bizitzan: "Niretzako Goenkale dena izan da: giro ona, etxean estimatua, pertsonaia ere aktoreen arabera moldatua, egunero aritzea oso erronka polita izan da".

Telebistaz gain, antzerkian ere aritu zen Garmendia. *Ama Begira Zazu* edo *El Florido pensil* obretan hartu zuen parte. Baita zinean ere. *Maité*, *Hamaseigarrenean aidanez* eta *El río que nos lleva* lanak egin zituen, besteak beste.



**Jauregi
TOLDOAK**



INSTALATZAILE OFIZIALA



Laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

**SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA**

Mota guztietako gida-baimenak

**Aita Urdaneta
ORDIZIA**

☎ 943 88 72 76

Beasaingo ludotekak:

Jolasaren garrantzia haurraren heziketan

Urtero bezala, irailean hasiko da kurtso berria. Hori dela eta, Beasaingo ludotekako kideek jolasteak haurren heziketan duen garrantzia azpimarratu nahi izan dute. Haurrek libreki jolastea ona dela aipatu dute ludoteka-koek eta beraien jarduerak horren arabera bideratuta daudela adierazi dute.

"Jolastea, Nazio Batuen Erakundearen arabera, haurren eskubide internazionala da 1989. urteaz geroztik", agertu dute hezkuntzako adituek. Halaber, haurraren izaerari erabat lotuta dagoela uste dute: "Haurraren heldutasuna garatzeko nahitaezko ekintza da jolastea, balore, jokaera eta gaitasun ezberdinak ikasteko modua baita. Gainera, haurraren garapenean funtsezkoa da: alor fisikoan, psikikoan, sozialean, emozionalean eta adimenean".

Jolastea, haurrak ikasteko modurik "errazena eta naturalena" dela adierazi dute. Horrela, jolasa askea eta gogoz egiten dena izan behar duela esaten dute: "Jolasak, bere balioa gorde



Kurtso hasierako jaialdia

Ikasturtea jada gainean dela eta, hasiera jai giroan ematea pentsatu dute Beasaingo ludotekako arduradunek. Irailaren 15ean egingo da festa Beasaingo Loinazko San Martin plazan. 17:30ean emango diote hasiera Kulkiren Arrantzaleen joko-

ak saioari eta haur eta gaztetxoek parte hartzea nabarmendu nahi izan dute. Horretaz gain, ludotekako aurreko urteetako argazki erakusketa bat jarriko dute bertaraten den orok egin dutena eta edukitzen dute giroa ikusteko.

Ikastetnik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak • Tailerrak

Joxi
Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea
Tel. - faxa:
943 88 19 87
676 178 488
OLABERRIA

GRÁFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 9
T/F 943 88 94 82

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5
BEASAIN

dezan, gogoz egiten dena izan behar du. Derrigorrezko bihurtzen denean bere ezaugarri garrantzitsuenetakoak galduko bailuke”.

Oinarritzko jostailuen proposamena

Adituen ustetan, eskolako porrotei aurre egiteko, haurra jaio eta bost urte bete arte jolas inteligenteak erabiltzeak eragin zuzena dauka. Horretarako, oinarritzko jostailuetara itzultzea proposatzen dute. Hau da, puzzleetara, plastilinar, pilotara, txotxongiloetara eta beste hainbat jokoetara.

“Jostailuak aukeratzeko orduan kontuan eduki behar dira horrek bultzatzen dituen balore ezberdinak: partehartzea, lagunen artean jolastea, irudimena lantzea, sentimendu eta nahiak adieraztea, erabakiak hartzea, berdintasuna eta besteenganako errespetua bultzatzea”. Era berean, ludotekako arduradunek diotenez, kontuan izan behar da baita ere hauraren izaera eta daukan adina.

Berritsu eta Txelotxe

Puxtarri aisialdi taldeak dauka Beasaingo bi ludotekaren ardura. Berritsu eta Txelotxe izena dute ludotekek baina biek helburu bera dute: aisialdian, jolasaren bidez, haur eta gazte txoek euskara erabiltzea.

Berritsu ludotekak jada bost urte ditu. Bertan, 4 ur-



teetako haurretatik hasi eta 12 urte bitartekoak egoten dira. Asteazkenean zehar egunero egoten da irekita 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan aldiz, 10:00etatik 13:00etara. Txelotxe ludoteka berriz, Ezkiagako auzo etxean dago eta bertan 4 urtetik 16 urte bitartekoak egoten dira. Asteko ordutegia 16:30etik 19:30era izaten da. Nahiz eta bi ludotekek ordutegi hori izan, haurrak erabakitzen du denbora horren barruan zer ordutan joatea komeni zaion.

Ekintzen nondik norakoak

Ludotekara etortzen diren haur eta gazteen adin tartea handia da. Hori dela eta, ekintzak adinaren arabera

Ludotekaren ezaugarriak

- Haur eta gazte txoen aisialdi eta jolaserako gunea.
- Jokoez gain, tailer eta dinamika ezberdinak eskaintzea.
- Euskaraz jolasteko gunea.
- Jolasaren bidez heziketa lantzea.
- Lagunekin harremanak izan eta jende berria ezagutzeko aukera ematea.
- Ekintza bereziak antolatzea.
- Hezitzaileek jolasak dinamizatzea, haurrak jokoetan parte hartzea bultzatzea eta giro ona izatea dute helburu.

antolatzen dituzte. Asko dira urtean zehar egiten dituzten ekintzak. Esaterako, kurtsoaren hasieran edozein haurrek ludoteka ezagutzeko aukera izango du, ateak zabalik izango baitira. Bertan, lekua, arauak eta hezitzaileak ezagutzeko garaia izaten dute. Behin ludotekaren nondik norakoak

ezagutu ondoren, programa zabal bati ekiten diote. Hala ere, urtean zehar honako gauzak egiten dituzte euskara oinarri harturik: ospakizunak antolatu (gabonak, ihauteriak...); eskulanak, tailerrak eta animazio jolasak eta euskarazko filmak. Hala ere, jolas librean oinarritzen da ludoteka.



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurrita.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Pottoka
K A F E T E G I A

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

Argazkia eta irudimena elkarri loturik

Gustura dago Jose Mari Telleria, Fotoetxeko argazkilaria. Izan ere, Espainiar estatuan antolatu den argazki lehiaketa batean hartu du parte eta bere argazki bat aukeratu dute finalerako.

Fuji ProMaster izena du lehiaketak eta bertan bi argazki mota aurkezteko aukera dago. Batzuk estudioko argazkiak eta besteak ezkontzetakoak. Bi modalitateetan hartu du parte Telleriak eta zortea izan du. Halaber, txapelketa aurkeztu zuen estudioko argazkia finalerako aukeratu dute eta ezkontzetakoak ere sailkapenean daudela adierazi diote lehiaketako arduradunek. Beraz, urrian jakingo du bere argazkiek saririk jaso duten edo ez, Sonimag Foto 2005 erakusketaren barruan.

Lehiaketen abantailak

"Denbora eta gogoa" dagoenean aurkezten da horrelako lehiaketa batera Telleriaren ustez. "Horrelako lehiaketa batera aurkeztuta onarpena eta ezagutzea bilatzen dituzu. Izan ere, hau lehiaketa garrantzitsua da eta jendeaz gain, ofizioko pertsonak ere ezagutzen zaituzte".

Pozik hartu du goierrita-

rrak bere argazkiaren aukeraketaren berria. Izan ere, bere ustez zaila da estudioko argazkiak egitea: "Argazkilariek baldintza berdintsuetan egiten dugu lan eta antzeko lanak ateratzen dira". Horregatik, irudimena-

ren garrantzia goraipatu du Telleriak: "Irudimena jarritz, zerbait berria egiten saiatzen zara".

Ezkontzetako argazkiak egitea erraza ez dela adierazi du argazkilariak. Baina bere ustez, azkenean diru-

diena baina errazagoa egiten da. "Argazkia egiterako orduan ideiak ezberdinak ateratzen dira. Eta horretaz gain, ezkondu behar dutenek ere ideiak ematen dituzte eta azkenean gauza politak irteten dira".



Argazki hau Jose Mari Telleriak egindakoa da eta finalerako aukeratu dute.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

e txekin

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA



ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48

Joxe Mari Telleria, argazkilaria:


“Lana pasioarekin egiten baduzu, argazkiei ikutu berezi bat ematen zaie”

Bere lana maite du Jose Mari Telleriak eta argazki bakoitza bizi egiten du. “Argazkia ateratzen dudan momentuan gustura sentitzen naiz. Gainerako ofizioetan jendeak bizi egiten du bere lana, ez du diruagatik bakarrik egiten, gustatzen zaiolako baizik. Nik ere halaxe egiten dut”.

Argazki on bat ateratzea ez da lan erraza, teknikak jakitea beharrezkoa da argazki on bat ateratzeko Telleriaren ustez. “Argitasuna, itzala eta konposizioak kontrolatzen dituen batek, kamera on baten laguntzarekin, argazki ona egingo du”. Gustua daukan pertsona batek ordea, argazki polit bat ateratzea “posible” dela uste du.

Hala ere, ezaugarri horiez gain pasioa edukitzea oso garrantzitsua da Telleriarentzat. “Lana pasioarekin egiten baduzu, sentimenduekin, ikutu berezi bat izaten du”, agertu du Fotoetxeko argazkilariak. Bere aburuz, argazkia edozeinek atera lezake, baina, lan hori biziz gero, zerbait hobea eskaintzeko aukera izaten da.

Argazkigintza artea ote den galderari honako eran-



zuna eman dio Telleriak: “Kamerarekin paisaia edo pertsona baten kaptura bat eginez gero, aurrean dagoenaren erreproduktzio bat egiten da. Egileak ordea argazkian eragina izan baldin badu, artea da”.

Bezeroaren nahia betetzea

Argazki bat ateratzeko garaian bezeroak zer nahi duen hartzen du kontuan argazkilaria honek. “Bezero-

aren nahia betetzea garrantzitsua da. Zure gustura eginez gero, baliteke berrari ez gustatzea eta finean, lan komertziala da”, aipatu du Telleriak.

Hala ere, zenbaitetan ideia berri bat eskaintzen dio bezeroari eta ildo horretatik joaten saiatzen dira: “Jendea aukerak ematen dizkiogu lan ezberdin bat nola egin ikusteko. Gertutasuna ematen saiatzen gara lanari, baina beti

ere, gure kutsu bat emanez”.

Argazkigintzan ere modak egoten direla aipatu du. “Duela urte batzuk adibidez, ezkontzetarako genituen ideiak jendea ez zitzaizkion asko gustatzen. Egun ordea, denek horrelako argazkiak nahi dituzte”. Orain berriz, gu beste ideia batzuk eskaintzen saiatzen gara eta hasieran jendea kosta egiten zaio ideia horiek ikustea”.

IBAI ONDO



Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztégia lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 Igara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

Estatu Batuetan zesta puntan



Juanito eta Tomas Oiarbide, segurarrak, urte askotan aritu ziren Estatu Batuetan zesta puntan jokatzeko. Juanito duela 11 urte itzuli zen herrira eta nahikoa

urruti ditu garai haiek. Tomasek, orain dela 21 urte itzuli bazen ere, gertutik jarraitzen du zesta punta eta Estatu Batuetako bizitza, hiru seme-alabak han baititu. Zaharrena, Jose Ramon, aita bezala zesta puntan jokatzeko ari da Danian.

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × 24 orduko asistentzia
- × e.a.



Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486

IÑAKI ARIN

Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

Jarraitzen al duzue gaur egun zesta punta?

Tomas: Nik semea bertan dut eta astean hiru egunetan, etxean banago behintzat, internet bidez ikusten ditut Daniako partidak.


Juanito: Nik ilobarentzako zestoak egiten ditut eta telebistan partidaren bat ematen badute ikusten dut, gainontzean mundu horretatik erabat kanpo nago.

Seguran esku pilota izango zen orduan nagusi eta nolaz hasi zineten zesta puntan?

T: Guk ere eskuz jokatzen genuen. Orduan eskuei ez zitzaion kasu asko egiten eta eskuko mina zela eta, 16 urterekin, Tolosako zesta punta eskolan proba egitea pentsatu nuen. Bertan entrenatzen urtebete neramala gure aita istripu batean hil zen eta utzi beharrean izan nintzen. Soldaduskara Madrilera joatea tokatu zitzaidan. Fronton Madrid-en, zesta, erremonete eta pala partiduak izaten ziren, baina emakumeak raketan ere. Nik zaletasuna oraindik baneuez, bertan jokatzen hasi nintzen eta partiduak jokatuz, jarri egin nintzen.

Ondoren Estatu Batuetara joateko eskaintza egin zidaten eta erabaki beharra izan nuen lana utzi edo zer egin. Sei hilabeteko eszedentzia eskatu nuen, ezkondu eta bertara probatzera joan nintzen 1974. urtean. 10 urte aritu nintzen eta belauneko lesioa zela eta, utzi ondoren itzuli nintzen. Momenturik hoberenean nengoenean utzi beharra izan nuen. Orduantxe nengoen hoberen joko aldetik, ekonomikoki, egonkortuta...

J: Ni ere eskuz aritzen nintzen eta Galarretako erremonete eskola probatzea erabaki nuen, hura ere utzi nuen. Anaia etxera etorri zen batean, zesta punta probatzera animatu ninduen eta horrelaxe hasi nintzen Tolosako eskolan. Aurretik erremonete aritu-



Hiru seme-alabak Estatu Batuetan

Tomas Oiarbideren hiru seme-alabak Estatu Batuetan bizi dira gaur egun. Seme zaharrena Danian ari da zesta puntan jokatzen. "Semea ondo dabil. Gainera, maila handiko partidak ari da jokatzen". Hasieran Tampara joan zen, han urte bat egin eta kimika ikasketak bukatzea itzuli zen. Orain Danian ari da jokatzen eta aldi berean kimika injinerutza ari da bukatzen.

Beste semea Salamancan ikasten ari zela neska amerikar bat ezagutu eta Chicagora joan zen bizitzera. Bertan doktoretza egiten ari da eta ume baten aita da. Alabak ikasketak bukatu ondoren lanik aurkitzen ez zuela eta, urte hasieran hara joan zen.

Tomasek dionez Estatu Batuetako bizitza batere ez da aldatu azken 20 urteetan. "Ni urtero joaten naiz eta orduan bezalaxe dago dena Hori bai gaur egungo pilotariak ingelesa dakitenez hango bizitzan integratuagoak daude".

Tomasek azaldu digunez, pilotalekuetara ez da lehen hainbat ikusle joaten. Hori dela eta pilotalekuan bertan kasino modukoak jarri nahi dituzte. Aldaketa hori egiteko baimena Dania inguruan lortu dute, Miami inguruan, berriz, ez.

takoa nintzen 6 hilabete-tan hartu nuen. 1973an Bartzelonara joan nintzen, han 11 hilabete egin nituen eta bertan nengoela Milanen jokatze eskaintza egin zidaten. Ia 5 urte egin nituen Italian. 1979ko udan etorri nintzenean Orlando-ko intendenteak bertara joateko eskaintza egin zidan eta halaxe joan nintzen

Floridara. 16 urte eman nituen bertan.

Seguratik atera eta Estatu Batuetara joatea aldaketa handia izan al zen?

T: Niri asko gustatu zitzaidan hura eta asko gustatzen zait. Lehenengo Madrilan egon nintzen eta han ere oso gustura egon nintzen. Garai hartan Madrilera katefegiak eguneko 24 ordu-

tan zabalik egoten ziren eta beti jendez gainezka, Ikara-garrizko giroa zegoen Madrilan, gaur egun ez bezala. Hori ezagutzeak bai harritu ninduela. Ondoren, Estatu Batuetara joatea ez zen hainbestearinoko aldaketa izan. Ingelesa egiten ez baduzu bertako jendearekin harremanik ez da izaten eta eragozpen bat da. Guk hori ez genuen ulertu eta ez genuen bertakoei harremanik izaten, oraingo gazteek bai, ingelesa badakite eta hobeto integratzen dira bertako bizitzan. Niri asko gustatzen zait amerikarren izateko era, gu baino naturalagoak dira.

J: Pilotari euskaldun koadrila elkartzen ginen eta bizi-modua gure artean egiten genuen. Ez genuen ingelesa ikastearen beharrik.

T: Nik ikasi ez izanaren pena handia daukat. Orain bi seme eta alaba Estatu Batuetan dauzkate, andrea eta ni bakarrik gaude hemen. Urtero joaten gara bertara eta seme gazteena amerikar batekin ezkondu zenez, bere familiarekin, hizkuntza dela eta, ez gara oso ondo ulertzen.

Zuek erretiratzean ez al zenuten dudarik izan, han geratu edo hona etorri?

T: Nik bai, niri asko gustatzen zait hura, baina erresidente ez bazara ez duzu geratzeko aukerarik. Nik banuen 4-5 urte jokatzen jarraitu eta ondoren nire ofizioan, elektrikari, lan egiteko asmoa. Floridan lan asko zegoen eta denborarekin erresidentzia lortu nahi nuen. Lesioarekin dena uste baino azkarrago joan zenez ez nuen aukerarik izan.

J: Behin pilotari kontratua bukatuz gero ilegal geratu-ko nintzateke, ezingo nuen lanik egin eta etorri egin nintzen. Bestela geratuko nintzen urte batzuetan. Han gainera lan asko dago. Lasaiago bizi dira, ez dago lanerako estresik.

Greba garaian lorazain aritu ginen lanean eta gurekin ari ziren amerikarrak askotan astelehenetan ez ziren lanera agertzen. Kobratu eta dirua gastatutakoan azaltzen ziren lanera. Gu zazpietako lanean hasten ginen eta nagusiak oso gustuko gintuen. Greba amaitu eta lana utzi genuenean pena handia eman zion, soldata igotzeko ere prest zegoen.

Zuk, Juanito, 3 urteko pilotarien greba bizi izan zenuen. Gogorra izan al zen?

J: Horixe ba gogorra. Hasieran egunero piketetan egoten ginen. Kartelak jarri eta pilotalekuko 4 sarreretan aritzen ginen. 11-12etan hasten zen goizeko saioa eta pilotalekura zihoan jendea ez sartzeko presionatzen aritzen ginen. 40 graduekin han egoten ginen arratsaldeko 4ak edo 5ak arte, eguzkitan. Etxera joan bazkaria prestatu, bazkaldu eta arratsaldeko saioa hasteko, 7etarako, berriro ere pilotaleku aurrean ginen 12ak aldera arte. Batzuetan pilotaleku barrura ere sartzen ginen: garrasi batzuk egin, bakarren bat sarean gora igo eta atxilotu egiten zuten... Gorriak pasatu genituen.


Greba luzatzen ari zenez beste lan batzuetan hasi ginen. Hasieran teilatuak konpontzen hasi ginen, jateetako altzari biltegi batean ere aritu ginen eta azkenean lorazain bezala lan egin genuen. Orduan, pilotari guztiak piketeetan egon beharrean, txandaka libre genuenean egiten genituen.

Zerbaitetarako balio izan al zuen grebak?

T: 3 urte irauten dituen greba, azkenean, denentzat da txarra.

J: Hasieran eskatzen genuena lortu genuen, baina, pilotalekuak itxi zirenez...

Zer bizitza egiten zenuten Floridan?



Ilobarentzat zestoak egiten

Pilotan jokatzear gain, zestoak egiten ere ikasi zuen Juanito Oiarbidek. Italian hasi zen lan horretan, beste pilotari bati lagunduz. Ameriketara ere egiten zituen zenbait pilotarientzat. "Orain ilobarentzat bakarrik egiten ditut eta justu-justu. Lanetik etxera 20:00etan iritsi eta hasi zaitez ba zestoa egiten. Gainera zesto asko egiten badiuzu eskua hartu eta azkarrago egiten dira, baina, gutxi batzuk bakarrik egiten badiuzu, denbora gehiago behar duzu. Nik edozein zestorekin jokatzen nuen, baina iloba bere aita bezala maniatiko xamarra da eta nirekin jokatu nahi du".

J: Goizean jaiki, gosalduta igerilekura. Oso ondo bizi ginen. Astean 9 funtzio jokatzen genituen: 3 egunetan 2 funtzio, beste hiruretan funtzio bat eta egun bat jai. 2 funtzioko egunak gogorak izaten ziren.

T: Kinielak ez dira bereziki gizonak egiteko, desegiteko baizik. Ez fisikoki gogorra delako, baizik eta tentsio handia egoten delako. Kiniela motzak izan arren, burua asko nekatzen da eta gorputza ere bai. Orduan nahi edo ez, atsedean hartu beharra zegoen. Gauerdian atera frontoitik, etxera joan afari legea egin eta urduri egoten nintzenez, paseotxo bat egiten nuen. 10ak aldera jaikitzen nintzen, ezkongabeak beranduago, eta

bueltatxo bat ematen nuen. Ni behintzat nekatuta egoten nintzen eta ibiltzeak on egiten zidan. Etxera joan bazkaldu, siesta txiki bat eta frontoira. Nik 5 hilabete Floridan egiten nituen eta beste 6 Rhode Island estatuko Neweort-en, New Yorketik gora 3 ordutara, Kanada aldera. Hura oso polita zen, lakuak zeuden eta ibiltzeko zoragarria zen.

Hango erosotasunetara ohituta, gogorra izan al zen itzulera?

J: Han oso ondo bizi ginen eta hemengo bizimodura ohitzea zaila izan zen.

T: Han ez nuen herriminik sentitu, hona etorritakoan bai izan nuela herrimina. Pilotariak bi motatakoak daude, hura batere gustatzen ez

zaienak edo asko gustatzen zaienak. Batere gustatzen ez zaienak garbi dute ahal dutena jasan eta lehen bait lehen itzuli behar direla. Batzuk han geratu dira bizitzaren eta oso amerikartuta daude.

J: Beste batzuk hango emaztea dute. Hasieran, udan etortzen direnean asko gustatzen zaie Euskal Herria. Baina, pilota utzi eta hona bizitzera etortzen direnean ez dute batere irauten. Ez dakit bikoteren bat ba ote dagoen, hona bizitzera etorri eta banatu ez denik. Hemen negua gogorra egiten da, Floridan urte guztia praka motzak eta txankletekin ibili edo hemen bizi oso desberdina da.

T: Ni etorri nintzenenean, seme zaharrenak 7-8 urte zituen, ingelesez hitz egiten zuen, momentu zailan etorri ginen, baina, haurrak segituan egokitzen dira eta ez genuen arazorik izan. Nik ofizioa banuen eta pixka bat ikasi eta segituan hasi nintzen lanean. Baina, egia esan, orain dela 21 urte etorri banintzen ere, han integratua goa nengoen orain hemen nagoena baino.

Diru asko irabazten al zen?

T: Ondo bizitzeko ematen zuen. Langile amerikarrek baino gehiago irabazten genuen baina hor irabazitakoaren kontura bizitzeko hainbat ez. Pilotari bat edo beste egongo da han irabazitakoarekin ondo bizi dena: Txikito, Uriarte...

J: Garai batean antolatzen ziren zenbait txapelketa oso sari onekin. Haiek irabazten zituztenek diru asko eramaten zuten.

Zesta puntan, jokalariren irteera Ameriketara joatea al da?

T: Han irteera gutxi eta hemen batere ez. Azken finean han bi frontoi daude merezi dutenak. Orain txikiagoren bat zabaldu behar omen dute.

Nolako pilotalekuak dira Estatu Batuetakoak?

T: Oso frontoi handiak dira. Miami pilotalekuan errekorra, gabon egun batetan jarri zuten, 13.000 pertsonatik gora sartu ziren. Dania-koa txikiagoa da baina 7.000tik gora sartzen dira. Kantxa eta harmailak zutaberik gabeak dira. 60-80 metroko egurrezko habeak ditu lau ormen gainean. Pilotaleku ikusgarriak dira.

Orain pilotari batzuk udan txapelketak jokatze- ra etortzen dira.

J: Gu ez ginen batere etortzen.

T: Orain ere kontratua sinatuta daudenak bakarrik etortzen dira. Beste zenbait ez dute etorri nahi, etorri gero dirua galtzen baitute. Hemendik aurrera, kontratu horiek bukatzean, gutxi izango dira etorriko direnak. Badira zenbait, diru pixka bat galduagatik uda Euskal Herrian pasatzea nahiago dutenak.

Kiniela jokatzeaz gain, jo- koan, materialean... ba al dago desberdintasunik?

J: Pilota oso biziak darabiltzate gaur egun. Pilota pisuagoekin, batez ere atzelari-ek esfortzu handia egin behar zuten eta lesio asko egoten ziren. Pilota bizi eta arinagoekin lesioak asko jaistea lortu dute. Horretaz gain, hemengo partidetan, hasieran tantoari eustea joaten zara, aurkaria nola dagoen ikusi, eta gero, behar bada arriskatu. Han partida laburrak direnez, hasieratik arriskatu eta tantoa egitera joan beharra dago.

Ikuslea dirua jokatze- ra bakarrik joaten da edo pilotaz ere badaki?

J: Oso gutxi, gehienak dirua

Jose Ramon Oiarbide Danian pilotari

Jose Ramon Oiarbide, Tomasen semea, azken 7 urteetan Danian ari da zesta puntan jokatzen. 1974an Donostian jaio eta gutxira Estatu Batuetara joan zen bizitzera, bere aita han ari baitzen jokatzen. "Putzua-
ren alde honetan euskal kulturarekin genuen harremana mugatua zen. Alde batetik pilotariak eta euren familiak ziren Euskal Herriarekin genuen lotura eta, bestetik, eskolako lagun guztiak amerikarrak ziren, beraien kultura yankearekin. Itzulera arraroa izan zen, eskolako 'amerikarrak' baikin. Hala ere, egokitzeta ez zen zaila izan", dio Jose Ramonek.

11 urterekin hasi zen, anaiarekin batera, lehen aldiz pilota frontisera jaurtitzen. Aitak zesta puntarako zuen grina pixkanaka semei kutsatu zien. 23 urterekin Floridako Tampan jokatze-
ko aukera sortu zitzaion, baina, handik 6 hilabetera pilotalekua itxi egin zen. Ondoren, Danian, Florida hegoaldean,

jokatze-
ra joaten dira. Frontoietan estatistika eta datu asko egoten da eta horri begiratzen diote. Jokoa ulertu, ulertzen dute baina detaile askotaz ez dira konturatzen. **T:** Jokaldiren bat gaizki egin baduzu segituan konturatzen dira.



jokatze-
ko proposamena egin zioten eta bertan jarraitzen du.

Zesta punta garai txarrak ari da bizitzen. "Nik pilotaleku baten itxiera ezagutu dut eta oso triste da. Nire aitak eta osabak bizi izan zutenarekin alderatuta, oso desberdina da. Beraiek jai-alaiaren gorena ezagutu zuten. Orduan 2-3 mila ikusle joaten ziren egunero. Gaur egun 500 la-

gun joaten direnean asko iruditzen zaigu. Egoera triste honek ba du bere alde ona. Orain kantxatik kanpo mugitzen den gero eta pilotari gehiago dago: ikasketak eginez edo beraien etorkizuna beste arlo batzuetan landuz. Horrek asko poztzen nau, hori baita herrialde honek duen abantailatariko bat, hainbat irtenbide eskaintzen dituela".

Aitaren aholkuak

Bere aitak internet bidez jarraitzen ditu semearen pauso guztiak. "Partidua-
ren ondoren telefonoz deitzen dit zer egin dudan ondo eta zer ez azaltzeko. Saiatzen naiz kasu egiten, baina, ez da hain erraza".

Bere osabak egiten dizkion zestoak direla eta al-
dageletan hainbat txantxa jasaten dituela aipatu du Jose Ramonek. "Normalak baina sakonera handi-
agoak dira. Horrela jokatzen ohitu naiz eta orain ez naiz aldatzen hasiko".

Goierrin azken aldiz 2003ko gabonetan egon zen, baina, Floridako euskaldun taldearekin asetzen du herrimina. "Famili-
az gain, Euskal Herriko jateko era da faltan sumatzen du-
dana. Saiatzen gara antze-
ko jana egiten, baina, oso zaila da".

J: Haiei tantoa azkar egitea gustatzen zaie. Bulegoan ordu erdi libre badute pilo-
talekura joaten dira dirua jokatze-
ra. Askok, harmaile-
tara joan gabe, pilotalekuko hainbat txokotan dauden telebistetan, zerbait jenez, ikusten dituzte partidua.

T: Batzuk autoan iritsi, kan-
poko leihatilan apustu-
etako txartelak hartu eta joan egi-
ten dira. Gauean pilotale-
kuan bertan edo hurrengo egunean egunkarian jakiten dituzte emaitzak. Izan ere, amerikarrek erosotasuna gustuko dute.



izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño ba-
serria
IDIAZABAL



LEIAR



KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Mutiloa

Lierniko Andra Mari jaiak

Irailak 8, osteguna:

11:30ean: Meza nagusia egingo da.

21:00etan: Auzokoen afaria egingo da Mujika jate-txean.

Egun osoan zehar: Erromeria izango da Garikoitz Lizarraga eta Iñaki Larrañaga trikitilarien eskutik.

Irailak 10, larunbata:

17:30ean: Ume Jolasak egingo dira Horretaz gain, Heriz magoaren ikuskizuna ere izango da ikusgai.

Ondoren: Haurrentzako merienda egingo da.

Arratsaldean zehar: Andonegi eta Ostolaza trikitilariak alaituko dute jaia ilundu arte.

Irailak 11, igandea:

Goizean: Goiz eresia egingo da Segurako txistularien eskutik.

10:00etan: XXIV. Pitxoi tiraketa egingo da Mutiloako Aitz-buru elkarteak antolatuta.

12:30ean: Meza Nagusia ospatuko da.

13:15ean: Toka lehiaketa egingo da.

Eguerdian zehar: Eguerdia parteko soina Andonegi eta Ostolaza trikitilarien eskutik izango da.

18:30ean: Zurgai taldearen eskutik, herri kirolak ikuskizuna begiratzeko aukera izango da. Aizkolariak eta harri jasotzailea bertaratuko dira.

Ondoren: Aurtengo festei amaiera emateko, Andonegi eta Ostolaza trikitilarien eskutik erromeria.

Beasain

Igartzako jaiak

Irailak 8, osteguna:

18:30ean: Meza eta erromeria izango da.

Irailak 9, ostirala:

12:00etan: Txupinazoa izango da festei hasiera emateko.

17:00etan: Igartza Loinazko I. Futbolin txapelketa jokatu da.

19:00etan: Buruhandi eta txistularien irteera.

19:30ean: Trikipotea egingo da.

22:30ean: Antzerkia. La Tirili taldeak *Gertakizuna* antzezlan eskainiko du.

23:30ean: Kontzertua Continuo Renacer, Brigada Criminal eta Darkness by Oath taldeekin.

Irailak 10, larunbata:

11:00etan: Marrazki tailerra.

12:00etan: Graffiti erakustaldia XL taldearekin.

16:00etan: Gezi tiraketa. VIII. Igartza Saria.

16:30ean: Mus txapelketa jokatu da.

17:00etan: Toka eta Igel txapelketak.

Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoek ZIRKOA ikuskizuna eskainiko digute.

19:00etan: Ostadar eta Arkupe dantza taldeek euskal dantzen jaialdia eskainiko dute.

20:00etan: Trikipotea.

21:30ean: Afari herrikoia.

23:30ean: DJ emanaldia.

Irailak 11, igandea:

08:30ean: V. Ehiz txakurren lehiaketa egingo da Itto-la zelaian.

13:00etan: Trikipotea.

18:30ean: Herri kirolak eta bertsolariak. Harria jasotzen: Goenatxo; aizkoran: Azurmendi eta Aierbe - Mugertza aita-semeak; enborra moztzen 5metroko alturan. Bertsotan: Alaitz Sarasola eta Aitor Sarriegi.

22:00etan: Jaien amaiera.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

ANZIZAR Taberna

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17
BEASAIN



LOTO
PRIMITIVA
1 X 2

Festa
onak
pasa!

☎ 943 08 61 62
Igartza Oleta, 12
BEASAIN

Beasain

Adineko pertsonen eguna

Irailaren 18an, Antzizar Kiroldegian adineko pertsonen eguna ospatuko dute. Jai horretan 400 pertsona inguruk hartuko dute parte.

Asko dira egunean bertan egingo diren ekintzak, baina hilaren 17an ere izango da zeregina. Izan ere, ekintzak bezperan hasiko dira honako txapelketekin:

11:30etan: Toka eta Igel-jokoak egingo dira eta

15:30etan: Musean, tutean, punttuan eta seikotan ibili ahal izango da. Txapelketa hauetan parte hartzeko izen ematea Erretiratuen Etxeko bulegoetan egin behar da, irailaren 12tik 15era 16:30etik 18:30era (65 urtetik gorako beasaindarrei dago zuzendua).

Igandeko ekitaldietan parte hartzeko, hilaren 18koetan, izen ematea udaletxean egin behar da irailaren 5etik 14ra bitartean eta 3 euro ordaindu behar dira. Honakoa da igandeko antolatuta dagoen egitaraua:


12:00etan: Meza egingo da Loinazko San Martín Parrokiako elizan.

13:30etan: Gure aurrekoei omenaldi bazkaria egingo diote Antzizar Kiroldegian.

Bazkariaren ondoren: Lehenengo alkatearen agurra egingo da eta horren ostean, bezperan ospatutako jokoaren txapeldunei trofeoak banatuko zaizkie.

Ondoren: Lehen omenaldirik jaso ez duten bi pertsona helduenei omenaldia egingo zaie (opariak eman ez eta ohorezko aureskua dantzatzuz. Aureskua Aurtzaka dantza taldeak eskainiko du).

Bukatzeko: Dantzaldia izango da Arrasto taldearekin.



Ordizia

Eskarabilla auzoko jaiak

Irailak 16, ostirala:

22:00etan: Mus txapelketa egingo da Itxaropena elkartearen.

Irailak 17, larunbata:

10:30etan: Haur jolasak.

12:00etan: Txupinazoa Bonberian.

Ondoren: Erraldoiak, buruhandiak eta trikitixa izango dira. Herri poteoa ere egingo da.

17:00etan: Oin lasterketa (haurrak eta kimuak).

17:30etan: Kale antzerkia Sebastopoleko titiretoreekin. Ondoren, txokolatada egingo da.

18:30etan: Koadrilen arteko herri kirolak izango dira ikusgai.

20:00etan: Haur danborrada egingo da.

22:00etan: Mozorro gaua, denok gozatzer! Trikitizio taldearen kontzertua izango da eta baita DJ Txo ere!

06:00etan: Matutina.

Irailak 18, igandea:

11:00etan: Alborada herriko txistulariekin.

12:00etan: Patxin eta Potxin pailazoak.

13:00etan: Omenaldia auzoko nagusiei auresku eta bertsolariekin. Oroimenezko plaka bat jarriko da. Antton Imaz eta J.I. Iturrioz abeslariak jarriko dute musika.

14:30etan: Herri bazkaria: zikiro jatea

20:00etan: Erromeria Patxi Perezekin.

Goierri tarra

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com



JULIAN MUJIK



Harategi - Urdaitegia

Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak

Festa onak pasa!

Igartza Oleta, 10 943 88 01 96 BEASAIN

KALITATEKO
EUSKAL OKELA



Harategia - Urdaitegia
Festa onak pasat!



943 888 646
Igartza Oleta, 12
BEASAIN

Saltsamendi

ETXEBIZITZAK

salgai

Ormaiztegin 117 metro karratuko pisu eguzkitsua saltzen da. Etxetresna eta altzariz ornitua. 3 logela, bainugela, sukaldia, egongela eta 3 terraza. 635709660.

Beasaingo erdigunean pisua salgai. Etxetresna eta altzariz ornitua. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. 679617159.

erosi

Goierrri inguruan baserri bat erosiko nuke. 677577717.

errentan eman

Nafarroan nekazal etxe bat alokatzen da, Urbasa inguruan. Handia da. 948539381 / 616537765.

Ataunen etxebizitza alokatzen da. 943180481.

Lizarran etxebizitza alokatzen da abuztuan. 649043256.

Conilen (Cadiz) apartamentua alokatzen da irailean,

urrian eta ondorengo hilabeteetan. Hodartza ondoan dago eta guztiz ekipatua dago. 680442668.

Zarautzen etxea alokatzen da udaran, astebukaeratan, zurbietan... Hondartzatik gertu. 685718454.

Luz Ardidenen apartamentua alokatzen da udan. 6 pertsonentzat, igerileku eta garaiekin. 943881666 (denda orduetan deitu).

konpartitzeko

Gazte bat elkarbanatzeko pisu bila dabil Ordizia, Lazkao edo Beasain inguruan. 635207249.

GARAJEAK

erosi

Garaje itxia behar da karabana bat sartzeko. Goierrri aldean kokatua. 646539460.

BESTELAKOAK

salgai

Ur zisterna saltzen da, nahiko berria. 2500 litrokoa. 616537765.

Pale bat eta erdi bloke saltzen dira, kolore tostatuan. 670422051.

Ura berotzeko berogailua salgai dago. 943084682.

Ezkontza soinekoa salgai, 2005. denboraldikoa. Konpromezurik gabe deitu 18:00etatik aurrera. 687947913.

Bizikleta estatika bat saltzen da, merke-merke. 943884767.

Gas-gas trialeko motorra salgai. 95. urtekoa, egoera onean. Kaskoa, botak eta hainbat extra opari. 1200 euro (negoziazioa). 615746233.

Mendiko kubiertak salgai. Sahara Extreme 235/75 R15 motakoak. Bi astez bakarrik erabiliak. 180 euro. 615746233.

Alfonbra handia (kalitate onekoa) eta oherako koltzak oparitzen dira. Jokin Sarasola, 943450697.

Pabiloia alokatzen da Ordizian. 150 metro karratukoa. 615787097.

TABERNAK

salgai

Aukera Beasainen. Taberna bat salgai erdigunean. Bezero finkoekin. 615787097.

LURSAILAK

erosi

Goierrri inguruan lursail bat erosiko nuke. 616698236 telefonora deitu.

Ikaskide

Irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
solairuartera
943 160 120
Beasain

ikaskide@ikaskide.net
www.ikaskide.net

2005-2006 ikasturtea
Matrikula zabalik!

INFORMATIKA

- ✓ Tutorea
- ✓ Ordenadore bat ikasleko

INGELERA

- ✓ Azterketa ofizialak
- ✓ HE0, Trinity College, Cambridge

TAILERRAK

- ✓ Irakurmena/ulermena
- ✓ Arreta, konzentrazioa
- ✓ Ikasketa teknikak

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Lehen Hezkuntza
- ✓ DBH, Batxilergoa
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Goi/Erdi mailako zikloak

Irakaskuntza mailako behar guztiei erantzuten dien zentru multidisziplinaria

Segurako gune historikoan 3 etxebizitza salgai

3 solairuko etxe bakarra

4 aldeetatik argitsua

Goi mailako kalitatea materialetan

96m², 108,7m² eta 112,5m² erabilgarriak

☎ 656 74 94 60 - 943 80 16 28 ☎



Cebanc-Cdea
FORMACIÓN PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA
Berio Pasealekua, 50 • 20.018 Donostia

Lanerako prest?



ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Profesionalak hezituz

OSTALARITZA ETA TURISMOA

- Jatebidea arloa.
- Sukaldaritza.
- Gozogintza eta okingintza.
- Jatebidea eta tabernako zerbitzuak.
- Sukalde-laguntzailea, I. maila.
- Ostetua arloa.
- Bidaia agentziak.
- Turismo-informazio eta merkataritza.

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Nazioarteko merkataritza.
- Merkataritza-kudeaketa eta marketina.
- Merkataritza.

INFORMATIKA

- Informatika-sistemen administrazioa (A eta D).
- Informatika-aplikazioen garapena (A eta D).
- Sistema informatikoen ustiaketa.

ADMINISTRATZIOA

- Administrazioa eta finantzak (A eta D).
- Administrazio-kudeaketa.
- Idazkaritza.
- Bulego-laguntzailea, I. maila.

MATRIKULA ZAITEZ!

☎ 943 316 900

IBILGAILUAK

salgai

Aprilia SR50 motorra salgai.
Oso egoera onean. Prezio
ona. 646535174.

Lada Niva 4x4 autoa salgai.
1600 zentimetro kubikokoa
eta gasolina. Egoera onean.
669688547.

Nissan Primera salgai. SE
modelo eta 150 zaldikoa. 7
urte dtu. SS-BB matrikuladu-
na. Oso egoera onean.
659049091.

ANIMALIAK

oparitzeko

Txakurkume mestizoak
oparitzen ditut. 619940982

Arratoi txakurkumeak
oparitzen dira. 620343576.

Txakurkume arra oparitzen
da. 620343576.

salgai

Arraza txikiko oiloak eta oi-
larra salgai. Oso politak eta
arrautza egile onak. Launa eu-
rotan. 943888068.

LANA

eskaerak

Goierriko taberna batean bi
langile behar dira: zerbitzari
bat eta platerak garbitzeko
pertsona bat. 943887351.

Zerbitzari bat behar da aste-
buruetarako. 629160500 /
627122097.

Neska bat behar da Ordizia-
ko taberna batean lan egiteko.
Asteburuetan, igandea ezik.
605772623.

Ordiziako taberna batean
zerbitzariak behar dira. Egun
osoko kontratuarekin.
676965396.

Asteburuetan taberna bate-
an lan egiteko pertsona bat
behar da. 627122087 /
629160500.

Beasainen emakume bat be-
har da orduka etxeko lanak
egiteko. 645728805.

Emakumea behar da Beasai-
nen 8 eta 4 urteko bi haur
zaintzeko eta etxeko lanak egi-
teko. Ordutegia: goizez.
645720330 (19:00etatik aurre-
ra deitu).

Emakumea behar da etxeko
lanak egiteko eta haur bat
zaintzeko goizez. 685769054.

Zerbitzari bat behar da uz-
taila eta abuztuan astebukaera-
tan lan egiteko. Esperientzia
daukana hobe. Goierriko ta-
berna bat. 943884196.

Zerbitzari bat behar da urte
osoan lan egiteko. Interesatuak
616698236 telefono zenbakira
deitu.

Neska edo emakume bat
behar da haurrak zaindu eta
etxeko lanak egiteko Beasai-
nen. Goizez deitu, 652713580.

Emakumea behar da etxeko
lanak egiteko eta haurra zain-
tzeko. 20:00etatik aurrera dei-
tu. 943028855.

eskaintzak

Mutil bat eraikuntzan lan egi-
teko prest dago. 685711303.

Emakumea prest dago elkar-
te, taberna... garbitu edo bes-
telako lanak egiteko.
679881809.

Neska bat eskaintzen da arra-
tsaldez etxea garbitu eta hau-
rrak zaintzeko. 652725929.

Adineko pertsonak zaintzeko
goizeko 09:00etatik 16:00eta-
ra. Esperientzia daukat eta
erresponzabilitatea ere bai.
616889923.

Esperientzia duen neska bat
prest dago etxeko lanak egi-
teko edo adineko pertsonak
zaintzeko. 620666221.

Mutila bat eskaintzen da erai-
kuntzan peoi bezala lan egite-
ko. 685711303.

Emakume bat eskaintzen da
gidabaimenarekin etxeak edota
baserriak garbitzeko. Baita adi-
neko pertsonak zaintzeko ere.
678781958 / 943027227.

Mutila prest dago abuztuan
zerbitzari bezala lan egiteko,
herriko jaietan edo beste edo-
zein lanetan aritzeko.
665704234.

Debaldeko iragarkiak:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com



RENAULT LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak



LOGOS
MOBILIARIO INTEGRAL

Goierriin egindako
sukaldeak



Lazkaoko gazte koadrila 1950 inguruan

1950. urte inguruan egin zuten lagunarteko bazkari egunean, Lazkaoko plazan atera zuten argazkia utzi digu Angel Eztalak.

Zutik (ezkerretik eskuinera): Pedro Andres Arkarazo, Migel Jauregi, Miel Aldasoro, Imanol Bereziartua, Enrike Bereziartua, Juanito Agirrezabal, Iñaki Agirre, Imanol Auzmendi, Joakin M^a Erauskin, soñu jolea, Gurutz Barandiaran, Lontxo Naldaiz, Inazio Barandiaran, Sabino Estala eta Joxe Aldasoro.

Makurtuta: Antonio Barandiaran, Karmelo Salas, Rodolfo Vitores, Pako Naldaiz, Joxe Mari Auzmendi, Antonio Auzmendi, Angel Eztala, Martin Barandiaran, Migel Albisu eta Juan Txapartegi.

Atal honetan argitaratzeko argazki zaharrak behar ditugu. Deitu 943-889612 telefono zenbakira. Behin erabilitakoan, argazkiak itzuli egiten dira.



Irailaren 5ean irekita

Goierri kalea 2
ORDIZIA
Tel: 943 087498
Email:

goierrikobaratzak@euskalnet.net



**Bertako produktuak
eta ekologikoak:**

Barazkiak.
Lekak.
Fruta.
Haragia.
Esnekiak.
Kontserbak.
Olioia.
Galetak eta opilak.
Ardoa eta sagardoa.
Txerrikiak.
Garbiketarako
produktu
ekologikoak.
Gazta.
Ogia.
Arrautzak.
Zukuak.
Makrobiotika...

Olagi

Urte guztian
zabalik

Sagardotegia
Jatetxea

Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



ZUZENKI
A HOLKULARITZA



Abokatuak

Enpresen asesoria
eta gestioa

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta:zuzenki@euskalnet.net

Hirigoien,7 LAZKAO

txekin

www.zuzenki.net

GIPUZKOAKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN XI. AZOKA

Azoka baino gehiago



IRAILAK 18
ZERAIN

9:00etatik 14:00etara azoka

17:30etik 19:00ak jo arte erromeria

Goizez: erakusketa eta tailerrak

ZERAIN PARKE KULTURALA



- Herri Museoa, Larraondo Zerrategia, Aizpeako Meategiak, Kartzela.
- HARIZTI-ERDI ATERPETXEA
- MANDIOA DENDA: herriko produktuak, artisautza
- INFORMAZIO BULEGOA: urte osoan zabalik

Herriko Plaza z/g Tel: 943 801 505 Faxa: 943 801 606 E-mail: mandioa@rebestb.es

ANTOLATZEN DUTE:



ZERAIN
DEZAGUN
FUNDATZIOA

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Euskara ikastaroak 2005-2006


IKASTAROAK	ORDU KOPURUA	HASIERA-BUKAERA
Maila guztiak	130 h. 274 h 346 h	05/09/15-06/06/23
Mintzamena eta irakurzaletasuna lantzeko taldeak	130 h.	05/09/15-06/06/23
Azterketak prestatzeko: Osakidetza, Hezkuntza	130 h.	05/09/15-06/06/23
Etorkinentzako harrera ikastaroak	60 h.	05/10/3-05/12/19
Ostalarientzako ikastaroak	60 h.	05/10/3-05/12/19
Autoikaskuntza sistema.Tutorearekin	234 h.	05/09/15-06/06/23
Izena emateko epea: irailaren 23ra arte		



Beasaingo
Udal Euskaltegia.
Loinazko San Martin Plaza.
BEASAIN
Tfnua.: 943 028100
Zuzendaritza@beasain.net

- > Beka sistemak eta diru-laguntzak
- > Langabetuek %30eko beherapena matrikulatzerakoan
- > Izena emateko www.udaleuskaltegiak.net erabiliz gero, matrikula baten zozketan parte hartuko duzu

o s k a r b i
oinetakoak



ordizia

beasain

zumarraga

arrasate